



GETXO. Bilboko portuan dauden haize erroten ikuspegi orokorra, artxiboko irudi batean. MIGUEL TOÑA / EFE

Parke eoliko bat eta hiru fotovoltaiko jarri nahi dituzte Araban

Iker Aranburu

Energia berriztagarrien instalazioak eraikitzeke proiektuak ugaritzen ari dira Euskal Herrian. Mendia Wind enpresak baimena eskatu du parke eoliko bat jartzeko, Gaubean (Araba). Sei haize errota izango lituzke, eta 43,2 megawatteteko potentzia.

Arabaren ere, Gasteizko eta Arratzua-Ubarrundia udalerriko lurretan, hiru parke fotovoltaiko eraikitzeke proiektua aurkeztu du San Miguel ISFV enpresak. Guztira, 6.480 panel izango lirakeke, eta lau megawatteteko potentzia. 15.500 metro koadro inguruko eremua hartuko luke.

Aurreko astean Arabako Aldundiak atzera bota zuen Laminoria izeneko parke eolikoaren proiektua, Arraia-Maetzun egin nahi dutena, ingurumen arazoak direla eta. Eremu horretan egin asmo duten parke fotovoltaiko bat, berriz, baimentzeko aukera handiak daudela aipatu zuen Ramiro Gonzalez ahalduen nagusiak, lehengoratu nahi duten harrobi batean dagoelako eta, hortaz, gizakiak eraldatutako eremua delako.

Udan, berriz, Eusko Jaurlaritzaren baimena jaso zuen Labrazako parkeak, Araba hegoaldean. Eta 2023ko maiatzean eskuratu zuen oniritzia Azazetakoak. Batek zein besteak 40 megawatteteko potentzia dute.

Arabatik kanpo, Urumearen gaineko mendietan, Gipuzkoa eta Nafarroa artean —Hernani, Berastegi, Elduain, Arano eta Goizuetako lurretan— hamalau haize errota handi jartzeko proiektua aurkeztu du FE Energy enpresak. Baimena jasoko balu, Euskal Herriko parke eoliko handienetakoa bat izango litzateke. Ehun megawatteteko potentzia luke parkeak, eta hortik gora dago Cavar parkea, Valtierra eta Cadreita artean (Nafarroa), 32 haize errota eta 111 megawatteteko potentziarekin. Potentzia txikiagoa dute Gerindako mendietan (Nafarroa) elkarren ondoan dauden parkeek, baina 123 errota daude han. ●

Berriztagarrien plana «nahita» atzeratu dute EH Bilduren ustez

- Mikel Oteroren arabera, Jaurlaritzak urtebete luzatu du alegazio txostena kalkulu elektoralistengatik.
- Atzerapenak ondorioak izan dituela esan du: «Desordena areagotu egin du».

Joxerra Senar

Mikel Otero EH Bilduko legebiltzarkideak Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala urtebete «nahita» atzeratzea leporatu dio Eusko Jaurlaritzari. Txosten horrek hauteskundeetan izan zezakeen eraginaren beldur zela uste du. Nahiz eta atzerapenaren erantzukizuna aurreko gobernuarena dela esan, Mikel Jauregi Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburuaren agerraldia eskatuko du, azalpenak eman ditzan.

Urriaren 31n, energia berriztagarrien lurralde plan sektorialari egindako alegazioen txostena kaleratu zuen Jaurlaritzak. 4.000 alegazio baino gehiago aurkeztu zituzten. Alta, lazko abenduan beste txosten bat atera zuen go-

bernauk, eta, Oterok atzo prentsaurrekoan azaldu zuenez, «ia berdinak» dira.

Lehen dokumentu hura berehala erretiratu zuen Eusko Jaurlaritzak, hutsegite bat izan zela argudiatuta. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Unibertsitatean plagioa atzemateko erabili ohi duten sistemarekin alderatu ditu Oterok bi dokumentuak, eta biak «ia berdin-berdinak» zirela ondorioztatu du: «Hau da, urtebete eman dute aste bakar batean lasai asko egin zitekeen lan bat egiteko, eta horrek oso kezagarria den zerbait adierazten du: Jaurlaritzak nahita gorde zuen txostena, hauteskundeetan eraginik izango zuen beldurrez», kritikatu du legebiltzarkideak.

Erabaki horrek ondorioak izan dituela azpimarratu du, halaber.

Aurretik ere atzeratuta zeterren prozesua «are gehiago» atzeratu zela nabarmendu du. «Bitarte horretan proiektu berriztagarri asko aurkeztu dira, eta energia horien hedapenean zegoen desordena areagotu egin du». Oterok gaineratu du handitu egin dela herritarrek proiektu horiei dien mesfidantza ere.

Proiektu horietariko asko ezarri nahi dira plan sektorialean aurreikusitakoaren arabera babestu beharreko lurretan. «Oraindik plana onartu ez denez, debekua ez dago indarrean», ohartarazi du.



«Jaurlaritzak nahita gorde zuen txostena, hauteskundeetan eraginik izango zuen beldurrez»

MIKEL OTERO

EH Bilduko legebiltzarkideak

Jauregi sailburuaren agerraldia eskatuko du koalizio abertzaleak. Atzerapenaren erantzukizun nagusia Urkulluren gobernuarena dela uste badu ere, azalpenak eskatuko dizkio. Hala, EH Bildurekin hitzartutako konpromisoa bete eta urtea amaitu aurretik energia berriztagarrien plan sektoriala «behin-behinean» onartzea galdegingo dio. Helburua da datorren urteko lehen sei hilabetean onartzea behin betiko. «Gobernuak bere gain hartu behar du erantzukizuna berriztagarrien hedapenean ordena jartzeko», esan du.

Oterok gaineratu du Jaurlaritzak prozesu bat ireki behar duela gaur egungo egoera ordenatzeko, eta energia berriztagarrien hedapena antolatzeko: «Planifikatu behar du zenbat, non eta nola ipini proiektuak, eta esfortzu bat egin behar du proiektu faraonikoak eta espekulatiboak bazterrean uzteko». Gogora ekarri du prozesu hori aurreikusita zegoela Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren legearen inguruan Jaurlaritzarekin hitzartutako akordioan. ●